

## GOBERNU BATZARRA

2017 03 20

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
- Olatz Peon Ormazabal**
- Zinegotziak:**
- Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Belloso**  
**Jokin Azkue Arrastoa**  
**Iñigo Alonso Sarasibar**
- Idazkaria:**
- Jose Luis Unanue Ugalde**
- Kontuhartzailea:**
- Ainhoa Molinos Zubiaurre**
- 1.- Aurreko akta onartzea.
  - 2.-Erantzutea Tolosako “12.4 San Frantzisko pasealekua, 32-34-36” azpiesparruko gauzatze-unitateko Kontzertazio-Hitzarmenaren hasierako onarpenaren ondorengo alegazioei, eta behin betiko onartzea *Kontzertazio-Hitzarmena/ Respuesta a las alegaciones presentadas tras la aprobación inicial del Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del Subámbito “12.4 Paseo San Francisco 32, 34, 36” de Tolosa y aprobación definitiva del Convenio de Concertación.*
  - 3.- Langunea Tolosaldean 2016-2017.
  - 4.-Iurreamendi egoitzak aurkeztutako 1/2017 zk. duen faktura zerrenda.
  - 5.- Bizibiziki SLren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmen proposamena, aktibatutako 2017 (Natur Turismo aktiboa) jardunaldiak diruz laguntzeko.
  - 6.-“Gu ere Bertsotan” proiektua ikastetxeetan. 2016-2017 ikasturtea.
  - 7.- 7 eta 8/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

## **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko martxoaren 13an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.-Erantzutea Tolosako “12.4 San Frantzisko Pasealekua, 32-34-36” azpiesparruko gauzatze-unitateko Kontzertazio-Hitzarmenaren hasierako onarpenaren ondorengo alegazioei, eta behin betiko onartzea Kontzertazio-Hitzarmena / Respuesta a las alegaciones presentadas tras la aprobación inicial del Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del Subámbito “12.4 Paseo San Francisco 32, 34, 36” de Tolosa y aprobación definitiva del Convenio de Concertación.**

2016ko azaroaren 25ean, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, PROMOTORA IRISTIZABAL SL merkataritza-sozietatearen izenean eta haren ordezkari moduan, ondorengo hitzarmen-proposamena aurkeztu zuen, tramitatzeko eta behin betiko onartzeko: Kontzertazio-Hitzarmena, «12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36» azpiesparruko gauzatze-unitatekoa.

«12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36» azpiesparrua, bere horretan, gauzatze integratuko esparru bakarra eta independentea da, “12. San Frantzisko” hirigintza-esparruaren barruan, zeinak azpiesparru hori hiri-lurzoru gisa sailkatzen duen eta A.20 kalifikazio globala (bizitegi erabilera) ematen dion.

HAPOak jasota dauzka azpiesparru horren egitura-antolamendua eta antolamendu xehatua, beraz, ez du behar hirigintza-plangintzako elementurik edo plan berezirik, hirigintza gauzatzen hasteko.

Tolosako Udalak, bere aldetik, 2016ko uztailaren 18ko Gobernu Batzarrean, behin betiko onartu zuen azpiesparru horretako Hirigintzako Jarduketa Programa (HJP), haren hirigintza gauzatzea jasotzen duena.

HJP horrek gauzatze-unitate bakar bat mugatzen du, bat datorrena azpiesparruarekin, eta jarduketa sistema moduan kontzertazio edo hitzarmen sistema ezartzen du.

El 25 de noviembre de 2016, José Angel Chapartegui Izaguirre, en nombre y representación de la sociedad mercantil PROMOTORA IRISTIZABAL, S.L., ha presentado para su tramitación y elevación a aprobación definitiva la propuesta de Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del subámbito “12.4 Paseo de San Francisco 32, 34, 36”.

El (sub)ámbito 12.4 San Francisco 32, 34, 36 conforma en sí mismo un único e independiente ámbito de actuación integrada situada dentro del Ámbito Urbanístico “12. San Francisco”, que clasifica el (sub)ámbito como Suelo Urbano, y con una calificación global A.20 (Usos Residenciales).

El PGOU recoge tanto la ordenación estructural como la ordenación pormenorizada del (sub)ámbito, por lo que no precisa de ningún instrumento de planeamiento urbanístico-Plan Especial para iniciar su ejecución urbanística.

Por su parte, el Ayuntamiento de Tolosa, en sesión plenaria de 18 de julio de 2016, aprobó definitivamente el Programa de Actuación Urbanizadora del (sub)ámbito, que programa la ejecución urbanística del mismo.

El citado PAU delimita una única Unidad de Ejecución que coincide con el (sub)ámbito y establece como sistema de actuación el Sistema de Concertación.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko abenduaren 26an, erabaki zuen hasierako onarpena ematea, baldintzatuta, «12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36» azpiesparruko gauzatze-unitateko Kontzertazio-Hitzarmenari.

Hasierako onarpen hori argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017ko urtarrilaren 11n, eta Idazkaritzak 2017ko otsailaren 15ean egindako ziurtagiriak egiaztatu bezala, Jose Angel Arandia Tolosak, Norkiola SL merkataritza-sozietateko administratzaile bakar den aldetik, alegazioak aurkeztu zituen hasierako onarpen horren aurka, ezarritako epearen barruan.

Era berean, idazkariak 2017ko otsailaren 14an egindako ziurtagiriaren arabera, M<sup>a</sup> Dolores Oyarbide Jauregui, San Frantzisko pasealekuko 36ko 1.ean dagoen eraikinaren jabeak, idatzi bat aurkeztu zuen bere atxikimendua adierazteko «12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36» azpiesparruko gauzatze-unitateko Kontzertazio-Hitzarmenari. Idatziarekin batera doa informazio-ohar soila.

Tolosako Udalak, 2017ko urtarrilaren 26an, aurkeztutako alegazioak bidali zizkion Promotora Iristizabal S Lri.

Azkenik, 2017ko otsailaren 14an, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, Promotora Iristizabal SL merkataritza-sozietatearen izenean eta sozietate horren eta idatzian zerrendatzen diren pertsonen ordezkari fisiko den aldetik, idatzi bat aurkeztu zuen Norkiola SLren alegazioei erantzuteko.

### **Alegazioen azterketa**

1.- 160.2 artikuluaurren urraketa, Lege

La Junta de Gobierno Local, con fecha 26 de diciembre de 2016, acordó aprobar inicialmente y con condiciones la propuesta de Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del subámbito “12.4 Paseo de San Francisco 32, 34, 36”.

Tras la aprobación inicial en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 11 de enero de 2017, y tal y como queda acreditado por el certificado de secretaría de 15 de febrero de 2017, dentro del plazo legal establecido José Angel Arandia Tolosa, en su calidad de administrador único de la sociedad mercantil Norkiola, S.L., presentó escrito de alegaciones contra la aprobación inicial.

Igualmente, según el certificado del Secretario, el 14 de febrero de 2017 M<sup>a</sup> Dolores Oyarbide Jauregui, propietaria de la vivienda situada en el Paseo San Francisco 36, 1º, presentó escrito manifestando su adhesión al Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del subámbito “12.4 Paseo de San Francisco 32, 34, 36”. Escrito al que se acompaña nota simple informativa.

Con fecha 26 de enero de 2017, el Ayuntamiento de Tolosa dio traslado de las alegaciones presentadas a la Promotora Iristizabal, S.L..

Finalmente, con fecha 14 de febrero de 2017, José Angel Chapartegui Izaguirre, en nombre de la sociedad mercantil Promotora Iristizabal, S.L. y en su condición de persona física representante de la mercantil y de las personas que se relacionan en el escrito, presentó escrito de respuesta a las alegaciones presentadas por Norkiola, S.L.

### **Análisis de las alegaciones**

1- Vulneración del artículo 160.2 de la Ley

honetakoa: lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa.

Aurkeztutako alegazioen arabera, gehienen borondatea 34. eta 30. zenbakiek besterik ez dute adierazi gauzatzea edo exekuzioa bultzatzeko Hitzarmena sinatuta, eta bien azalera batuta gauzatze-unitateko lurzoruaren titularitatearen % 34,79 baino ez da, eta hori 2/2006 Legeko 160.2 artikularen urraketa bat da.

Baina San Frantzisko pasealekuko 36ko 1.ean dagoen eraikinaren jabearen atxikimenduarekin San Frantzisko 36ko komunitatearen % 68ko ordezkari-tza osatzen da eta gauzatze-unitateko finken % 55,4, izan ere, jabeek gehiengoordezkatzeko dute hor dauden jabeen komunitateetan. Horretaz gain, gaur egun, San Frantzisko 32ko komunitatean jabeen % 50 atxiki da eta aurreikusten da atxikituko direla San Frantzisko 32ko 2. ezk. eta 3. ezk.

Azken batean, atxikimendu berriekin betetzen da Legeko 160.2 artikulua ezarritako lege-baldintza.

2.- 45.2 artikularen eta 135. artikularen urraketa, azken hori 194. artikularekin lotuta, lege honetakoak: lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa.

Alegatzailearen arabera, aurreikusita dago birpartzelazio proiektua, urbanizazio proiektua eta eraikitze-lizentzia batera onartzea behin betiko, eta horrek urratuko lituzke 2/2006 Legeko 45.2 artikulua eta 135. artikulua, azken hori 194. artikularekin lotuta.

Horrela aurreikusi zen saihestu nahi zelako sor litekeen egoera baldin eta arroaren ardura duen erakundeak ukatu egingo balio eraikitze-lizentzia eta/edo baimena hor aterako den ondoriozko partzelari, behin birpartzelazio-proiektua onartu eta

2/2006, de 30 de junio, de suelo y Urbanismo del País Vasco.

De acuerdo a la alegación presentada, sólo los número 34 y 30 muestran su voluntad mayoritaria de impulsar la ejecución firmando el Convenio y la suma de la superficie de ambas no alcanza más que un 34,79 % de la titularidad del suelo de la unidad de ejecución. Lo cual supondría una vulneración del artículo 160.2 de la Ley 2/2006.

Sin embargo, la reciente adhesión de la propietaria de la vivienda de San Francisco 36, 1º supone la representación del 68 % de la comunidad de San Francisco 36 y del 55,04 % de las fincas de la Unidad de Ejecución, por la mayoría que representan los propietarios en cada una de las comunidades de propietarios existentes. Todo ello independientemente de que a día de hoy en la comunidad de San Francisco 32 se haya adherido el 50 % de los propietarios (si bien se prevé la próxima adhesión de los propietarios de San Francisco 32, 2º izq. y 3º izq.

En definitiva, con la nueva adhesión se da el cumplimiento de la condición legal impuesta por el artículo 160.2 de la Ley.

2- Vulneración del artículo 45.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y Urbanismo del País Vasco y del 135 en relación con el 194 de la misma.

Según el alegante las previsiones de simultanear la aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación, Proyecto de Urbanización y licencia de edificación, vulnerarían el artículo 45.2 y el 135 con relación al 194 de la Ley 2/2006.

La previsión se debía a la voluntad de evitar la situación que pudiera generarse ante una eventual denegación de la licencia de edificación y/o autorización del organismo de Cuenca para edificar en la parcela resultante, habiéndose aprobado

gero; izan ere, kasu horretan, birpartzelazio-proiektua behin betiko onartuta eta erregistroan inskribatuta, desagertu egingo lirateke Jabetza Erregistrotik azpiesparruko etxebizitza eta lokalekin bat datozen erregistro-finkak eta ez litzateke aukerarik egongo lursail horietan finka berririk eraikitzeko, eta horrek segurtasun falta ekarriko luke.

Baldintza horrek gaur egun ez du inolako zentzurik, adierazitako aginduen urraketa gorabehera, izan ere, Promotora Iristizabal S Lk baieztatu bezala, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak baimena eman du sotoan proiektuko garajeak egiteko. Hori horrela, behin betiko hitzarmena onartu beharko da hasierako onarpena jaso zuen hitzarmenetik honakoak kenduta: azalpeneko III eta hirugarren klausulako C letra.

Azkenik, adierazi behar da hitzarmena sinatu aurretik frogagiri bat aurkeztu dutela, bankuan eskudirutan urbanizatzekaren zenbatekoaren % 7 (76.224,11€) jarri izanarena, Kontzertazio-Hitzarmenean jasotako konpromisoen berme gisa. Beraz, beteta gelditzen da hasierako onarpenarekin batera jarritako baldintza.

Horiek horrela, eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU:**

**LEHENA.-** Ezestea Norkiola SL merkataritza-sozietateak aurkeztutako alegazioak, erabaki honen azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik eta «12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36»

definitivamente el proyecto de reparcelación, ya que, en tal caso, por los efectos de la aprobación definitiva e inscripción registral del proyecto de reparcelación, desaparecerían del Registro de la Propiedad las fincas registrales que se corresponden con las viviendas y locales del (sub)ámbito, sin posibilidad de construir nuevas fincas sobre dichos terrenos, con la inseguridad que ello generaría.

Esta condición carece actualmente de sentido, independiente de que se vulnerasen los preceptos señalados, dado que, tal y como se ha aceptado por la Promotora Iristizabal, S.L., la Confederación Hidrográfica del Cantábrico ha autorizado la construcción en sótano de los garajes proyectados. Por lo que el Convenio definitivo se deberá aprobar suprimiendo del convenio inicialmente aprobado el expositivo tercero y la letra C de la Estipulación Tercera.

Finalmente, señalar que, previamente a la firma del Convenio, se ha presentado en garantía de los compromisos recogidos en el Convenio de Concertación justificante del ingreso bancario en metálico del equivalente al 7% de la cuantía de las cargas de urbanización (76.224,11 €). Por lo que queda cumplida la condición impuesta en la aprobación inicial.

Ante todo lo expuesto, y de conformidad con el dictamen emitido por la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO.-** Desestimar las alegaciones presentadas por la Sociedad mercantil Norkiola, S.L., por los motivos señalados en la parte expositiva del acuerdo y en los informes obrantes en el expediente de

azpiesparruko gauzatze-unitateko  
Kontzertazio-Hitzarmena onartzeko  
espedientean dauden txostenean jasotako  
arrazoiengatik.

**BIGARRENA.-** Behin betiko onartzea  
«12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36»  
azpiesparruko gauzatze unitateko  
Kontzertazio-Hitzarmena, ondorengo  
baldintza honekin:

**Testutik kentzea azalpeneko III eta  
hirugarren klausulako C letra.**

**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri  
ematea parte diren guztiei.

aprobación del convenio de concertación  
de la Unidad de Ejecución del Subámbito  
“12.4 Paseo de San Francisco 32,34, 36”.

**SEGUNDO.-** Aprobar definitivamente la  
propuesta de Convenio de Concertación de  
la Unidad de Ejecución del subámbito “12.4  
Paseo de San Francisco 32, 34, 36”, con  
las siguiente condición:

**Eliminación del texto el expositivo III y  
la letra C de la Estipulación Tercera.**

**TERCERO.-** Dar cuenta de la adopción del  
presente acuerdo a las distintas partes  
afectadas.

### **3.- Langunea Tolosaldean 2016-2017.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2016ko ekainaren 15ean egindako bilkuran (2016ko ekainaren 16an argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 342.960,23 euroko programa bat aurkeztu zuen 2016ko abuztuaren 22an.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, Tolosako Udalari 342.960,23 euroko diru-laguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, hainbat enpresak interesa azaldu dute “Langunea Tolosaldean 2016-2017” programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Ondoren aipatzen diren enpresei diru-laguntza hauek ematea, beti ere betetzen badituzte azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak.

<b>Enpresa</b>	<b>Kontratu kopurua</b>	<b>Kontratuaren iraupena</b>	<b>Lanaldia</b>	<b>Diru-laguntza</b>
TALLERES IBARRA, S.L.,	1	3 hilabete	Osoa	2.835,18€

ORBINOX, S.A.,	1	4 hilabete	Osoa	3.329,67€
----------------	---	------------	------	-----------

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Ekonomia Sustatzeko Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

#### **4.- lurreamendi egoitzak aurkeztutako 1/2017 zk. duen faktura-zerrenda.**

lurreamendi egoitzak **1/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **241.742,68** €-koa hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- lurreamendi egoitzak aurkeztutako **1/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi egoitzari.

#### **5.- Bizibiziki SLren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmen proposamena, *Aktibatu 2017* (Natur Turismo aktiboa) jardunaldiak diruz laguntzeko.**

2015ean eta 2016an, Tolosako Topicen, Bizibiziki aholkularitzak *Aktibatu* jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi horietan, berrikuntzarekin, natura turismoarekin eta iraunkortasunarekin erlazionatutako gaiak jorratu zituzten, sektoreko profesional, enpresaburu, eta tokiko eta eskualdeko eragile publikoentzat etengabeko trebakuntzarako eta dibulgaziorako elkargune bat izateko asmoz. Azken urteetako jardunaldien balorazioa positiboa izan da eta jardunaldi hauek, Elkarte Autonomoan, natura turismoko erreferente bihurtzen ari dira.

Bizibiziki aholkularitzak proposatu du jardunaldi hauek berriz ere Tolosan egitea, 2017ko martxoaren 30ean eta 31n. Udalak beharrezkotzat jotzen ditu horrelako ekimenak sustatzea, ekimen baliagarriak baitira Tolosan naturarekin eta iraunkortasunarekin zerikusia duen turismoa bultzatzeko eta Tolosako landa eremuaren garapenean aukera berriak aztertzeko.

Hori dela eta, Tolosako Udalak 6.000€-ko diru-laguntza ematea proposatzen du, *Aktibatu 2017* jardunaldia babesteko. Jardunaldiaren antolaketarako aurreikusten den aurrekontu osoa 67.895€-koa da (BEZa barne). Diru-laguntza, beraz, aurkeztutako aurrekontu osoaren % 8,8 da. Portzentaje horrek ez du diru-laguntzaren muga finkatzen. Diru-laguntza hau beste erakundeen diru-laguntzekin bateragarria da, beti ere diru-sarrerek ez badute dagokion jarduketaren kostua gainditzen.

2017ko aurrekontuetan, 6.000€-ko dirulaguntza izendun edo nominatiboa aurreikusi da, jardunaldi hauei laguntzeko, Bizibiziki SLren izenean. Diru-laguntzaren ordainketa 2017. urtean egitea proposatzen da, 1100.481.01.172.00 partidaren kargura, urteko ekitaldi ekonomikoaren barruan, jardunaldiak burutu eta gastuen justifikazioa egiten denean. Diru-laguntza honen markoa definitzeko hitzarmen proposamen bat egin da.

Hori guztia ikusirik, eta Ingurumen teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Tolosako Udalak Bizibiziki SL enpresari 6.000€-ko diru-laguntza ematea, *Aktibatu 2017* jardunaldia babesteko.

Laguntza honen truke, Bizibiziki SLri ondorengo eskakizunak egitea:

- Tolosako Udalaren logoak azaldu beharko du *Aktibatu 2017* jardunaldiko dokumentu eta euskarri grafiko guztietan.
- Bizibiziki SLk Tolosako Udalari bost (5) gonbidapen emango dizkio *Aktibatu 2017* jardunaldian parte hartzeko.
- *Aktibatu 2017* jardunaldiaren bitartez, Tolosako eta bertako baliabide turistikoaren promozioan eragingo da.
- *Aktibatu 2017* jardunaldiaren egitarauan, Tolosako landa eremuko garapenerako aplikagarriak izango diren gaiak landuko dira.
- Diru-laguntza zuritzeko, ondorengo dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkio Udalari:

**Jardueren memoria**, diru-laguntza jaso duen egindako ekintzarena; jaso beharko ditu diru-laguntzarekin finantzatutako jardueren azalpen xehatua eta kostua.

**Memoria ekonomikoa**, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; honako dokumentu hauek bilduko ditu: 887/2006 Errege Dekretuak, diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duenak, aipatzen dituenak, eta Bizi-biziki SL enpresarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenean zehazten direnak.

**BIGARRENA.**- onartu eta sinatzea aurreko konpromiso eta betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Bizibiziki SLri, Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Departamentuari.



## **6.- “Gu ere Bertsotan” proiektua ikastetxeetan. 2016-2017 ikasturtea.**

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak diru-laguntza eskaria egin zion Tolosako Udalari, “Gu ere Bertsotan” proiektua aurrera eramateko Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan, 2016-2017 ikasturtean.

Eskariarekin batera, aipameneko ikasturteko programari buruzko txostena eta aurrekontua aurkeztu zituzten.

Hain zuzen ere, 2016-2017 ikasturteko aurrekontua, guztira, 28.791,58 eurora iristen da.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak 2016ko uztailaren 27an egindako bileran, ikusirik “Gu ere Bertsotan” proiektuak aurreko ikasturteetan Tolosako ikastetxeetan izandako arrakasta eta edukitako emaitzak, ontzat jo zituen 2016-2017 ikasturterako Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak aurkeztutako egitasmoa eta aurrekontua.

Ildo horretatik, “Gu ere Bertsotan” proiektua dela-eta, Tolosako Udalak 2017ko udal aurrekontuetan, 0900.481.01.335.10 partidan, 28.791,58 euro dauzka izendatuta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen alde.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 28.791,58 euroko diru-laguntza ematea Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari, aurrera eramateko “Gu ere Bertsotan” proiektua Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan, 2016-2017 ikasturtean.

**BIGARRENA**.- Diru-laguntza bideratzeko hitzarmena onartzea.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

## **7.- 7 eta 8/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **7/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **86.423,96 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 7/2017 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

.....

Kontuhartzailetzak **8/2017** faktura zerrenda aurkeztu du, **2.500,92 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 8/2017 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**